

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Sudurraren aiekak

MAKINA BAT AIEKATIK kosk egin eta tiratu daiteke usainen sorroan. Eta erabaki ezinik nabil: udako usain festari eutsi eta azaharra edo laranja lorea (*Citrus sinensis*), ezkia (*Tilia* sp.), sasi-azaharra (*Philadelphus coronarius*) eta antzekoen kontuei heltzea da aieketako bat. Gure etxeetako eta baserrietako atari ugaritan usaindu diren landareak, udako solstizioetako lurrinak: batzuen ustez basatzen gaituzten instintuen suaren pospolo direnak, nire iritziz naturaltzen eta geurekottzen gaituzte. Laranjondoa ez beste guztiak desageritzen ari dira, batere surik pizten ez duen estetikaren mesedetan.

Belarri gainean, ezpainen xokoan, atorraren begitean, bular erretenean edo hor konpon bakoitzak non, soinean loreak eta landare puskak eramateko ohitura galdua da beste aieka. Usainak eta lore deigarriak. Pottotxo garestietako lurrinen lana, merke asko hazitako landareekin. Luisa belarra edo berbena limoiusaina (*Lippia triphylla*) hosto batzuk bular erretenean sartu dituen emakume batek baltsera ateratzen zaituenean, deskuiduan estu antzera heltzen badiozu azkar asko antzemango diozu diodanari.

Menda-belar jendea gonapeko izan dugu eta bere usainak teilatu hegaleko. Animaliak garen eta ditugun artean ere hala izango da. Mendak, *Mentha* sp., nitrogenozale porrokatuak dira eta animaliak pilatzen garen tokietan, animalien gorotzak pilatzen diren tokietan, animalien gorotzen nitrogenoa pilatzen den tokietan, menda-belar jendartea ugaritu egiten da. Euskal Herrian berezko zortzi-hamar bat menda



ARTHUR

Mentha spicata.

topatu izan dira. Orain, baina, mundu osoko mendak datozkigu, dakarzkigu. 25 espezie inguru ezagutzen dira, baina beraien arteko hibridoak ezin konta ahala dira. Menda beraren usaina gutxitxo, nonbait, eta beste usainen konkistan abiatuak dira landare sortzaille berritzaileenak. Etxeratuak ditut limoi usaina (*Mentha x citrodorus*) eta marrubi usaina (*Mentha spicata*) duten menda landare bana. Usainen bildumak egiten dituzten horien aieka ere bai baita. Menda-belar jendarteak ezagunak dira bilduma horietan. Geranio usaintsuak (*Pelargonium* sp.) dira bildumetako bolada berrienetakoak. Eukaliptoak, pinua, limoia, arrosa... usain askotakoak dira. Menda usaina du, adibidez, *Pelargonium tomentosum*-ek. Memorian hor izango dugu usain bilduma, baina laster bakoitza zerena den ez dugu berehalakoan asmatuko.



Irakurleak galdezka

Hondarribi aldean lursail txiki bat badugu, eta ondokoak kanabera batzuk dauzka. Kontua da gure sailera ere zabaltzen ari direla, lur azpitik. Hori nola edo hala geldiarazteko modurik badago?

Xabier Azkue (Hondarribia).

Kanabera landareak bi zati ditu: bata guk ezagutzen dugun zerurantz hazten den kanabera zuzena, muturrean hostoak dituen eta bestea lurpean hara eta hona zabaltzen den beste kanabera bat. Hori etengabe hazten da. Urteik urtera zabalduz eta gero eta alor handiagoa kolonizatuz. Hori ez da sekula amaitzen. Landare guztiek bezala biziko bada hazi beste aukerarik ez du. Zuhaitz gora eta zabalera haziko den bezala kanaberak zabalera bakarrik ekin ahal dio.

Dagoeneko zuen sailera sartu bada, erruki zaituztet. Lan ederra duzue, hartzekoa duzuen! Hasi, ahal

duzuen bezain pronto, bere kontra. Kanabera berriak azaltzeko modu horrek erakusten du lurpeko kanabera handik hara doala. Urrutieneko, azkeneko kanabera berrietik hasi behar da: hartu aitzurra, lurpeko hori topatu eta gupidarik gabe zuztar horiei lurra kenduz segi auzokoaren saileraino. Horrela, azaldu diren kanabera berri guztiekin. Lan ederra, ezta? Hondalana deitzen zaio.

Okerrena inoiz bukatzen ez den lana dela jakitea da. Hau da, urtero-urtero, urtea joan urtea etorri errepikatu beharko duzuen. Beste saileko kanaberak hor dauden artean behintzat...

Aitzur lanean ari zareten aldi berean, gozo-gozo auzokoarekin kanaberadi osoa kentzeko negoziatioetan hastea duzue onena...

Aitzurrerako bezala negoziatioetarako ilgorak aprobetxatu...